

ZER DIRA FUNTSEZKO JARDUERAK?

Funtsezko jarduerak ezinbestekoak dira balorezko proposamena egiteko, bezero potentzialengana iristeko, bezeroekiko harreman eraginkorrak eraikitzeo eta diru sarrerak lortzeko. Funtsezko jarduerak horrela banatzen dira: produkzioa, arazoak konpontzea eta sareko jarduerak.

GURE ASOZIAZIOAREN PRODUKZIOA

Alde batetik, gure elkarteak produktu propioak ekoizten ditu. Hala nola, poltsak, kirol-ekipazioak... Hori guztia ekoizteko, gure asoziazioa ondasun horiek ekoizten dituen beste enpresa bati ordaintzen dio. Guk bakarrik, diseinuan hartzen dugu parte. Diseinuan genero diskriminazioa ekiditeko irizpideak erabiltzen ditugu, estereotipoekin amaituz.

Administrazioari dagokionez, honako hauek dira gure jarduerak:

- Zerbitzuak asoziazioaren barruan erabakitzea eta antolatzea
- Elkarteko langileak taldeetan antolatzen dira administrazio arlo ezberdinetan lan egiteko
- Ekintzetarako eta jarduera batzuentzako baimena eskatzea

SAREKO JARDUERAK

Plataforma eta Sareko jarduerak aurreko jarduerekin alderatuz, lehentasun gutxiago izango dutena arren, oso garrantzitsua da gure proiektuentzat web gunea eta sare sozialak eraginkortasunez kudeatzea, mantentzea eta sustatzea.

Web orri bat dauka antolatzen ditugun ekintzak ezagutarazteko eta ekoizten ditugun produktuak saltzeko. Baita ere, webgunean egin ditugun ekintzei buruz informazioa jartzen dugu. Aldi berean, webgunearen bidez gure kontaktu eta sare sozial guztiak agertzen dira,

bezeroek gurekin kontaktuan jartzeko, edozein zalantza galdetzeko eta baita ere gurekin ekintz batean parte hartu nahi baldin badute, webgunearen bidez egiteko, familia batzuei askoz errazagoa eta erosoagoa iruditzen zaielako.

Webgunean, laguntzen diguten enpresen zerrenda bat daukagu gure bezeroek ikusteko zein motatako enprekin egiten ditugu lan. Azkenean haien laguntzari esker, gure asoziazioa aurrera ateratzen da.